Frankismoan erbesteraturiko zinemagileen lanak azaleratu ditu Zinebik

Joan Castanyer, Jose Maria Berzosa, Adolfo Arrieta, Joaquin Lledo eta Fernando Arrabalen filmak erakusten ari da

Agentziak Bilbo

Frankismoan Frantzian erbesteraturiko zinemagileen lan «ia guztiz argitaragabeak» erakutsiko ditu Zinebi jaialdiak aste honetan. Joan Castanyer, Jose Maria Berzosa, Adolfo Arrieta, Joaquin Lledo eta Fernando Arrabalen filmek osatzen du atzo hasitako zikloa; horien artean, *¡Arriba España!* (1976), *Andorra* (1945), *Le jouet criminal* (1969), *Les intrigues et Sylvia Couski* (1974), *Le sujet ou le secrétaire aux mille et un tiroirs* (1974), *Sang et or* (1978) eta *Viva la muerte* (1970).

Luis Enrique Pares zinema historialari eta *Espainiarrak Parisen. Espainiako erbestea Frantzian filmatua (1945-1978)* zikloaren antolatzailearen hitzetan, «oso ausartak, esperimentalak eta apurtzaileak» dira film horiek. Frantziak eskaintzen zuen askatasuna baliatu zuten zuzendariok zinema independenteari heltzeko. Haren arabera, «espainiartasunaren ideia» presente dago film guztietan; baina, hala ere, «Espainiako historiarekin eta zinemarekin konpromiso sakona erakutsi arren, zuzendariok guztiz ezezagunak dira Espainian», Paresek adierazi zuenez.

Frankismoaren garaian Frantzian zinema egitea «bizi-esperientzia bat» izan zela azaldu zuen Joaquin Lledok

Haurrei euskal mitologiako kondairak ezagutarazteko bilduma bat ondu du Txilikuk

Gaztetxoentzat Meabek, Lopetegik, Morillok eta Urrutiak idatzitako lan bana kaleratu du Ereinek

Erredakzioa Donostia

Euskal mitologiako kondairak haurrentzat izenburupean, hiru ipuinez osatutako bilduma bat ondu dute Jesus Mari Olaizola *Txiliku* idazleak eta Joxean Lopetegi marrazkilariak. Zortzi urtetik gorako haurrentzako ipuinetan euskal mitologiako kondaira eta pertsonaia ezagunenak bildu dituzte, eta banaka nahiz liburu bakarrean bilduta kaleratu ditu Elkar argitaletxeak.

Mari jainkosa eta haren familia aurkeztu dituzte bi egileek *Arratsalde bat Marirekin* ipuinean, eta gizakiak, jentilak eta laminak elkarrekin bizi ziren garaiak *Kontuz gizakiekin* lanean. Tartalo nahiz iratxoak agertzen diren hainbat beldurrezko istorio, berriz, *Arraioak!* liburuan jaso dituzte. Nerea eta Julen anai-arrebak dira hiru ipuinetako protagonistak; ordenagailu aurrean daudela azalduko zaizkie izaki mitologiko horiek guztiak, errealitatea eta fikziozko mundua nahasiz.

Txilikuren hitzetan, kultura guztietan daude mitoak, eta herri bakoitzaren nortasuna markatzen dute. Euskal Herriko kondairak euskal kulturaren parte direla azaldu, eta horiek haurrei gerturatzearen alde egin du idazleak. Izaki mitologikoen irudiak gaurkotu eta haurrentzat modu erakargarrian marraztu ditu Lopetegik ipuinetarako.

Haur literaturako lau lan

Erein argitaletxeak, berriz, haur eta gazte literaturako beste lau liburu kaleratu ditu. Umorea baliatu du Joxean Lopetegik *Hi haiz hi, pirata!*-n, haurrek etxean, ikastetxean eta auzoan duten egunerokoa azaltzeko. Istorio gordinagoa agertu du Miren Agur Meabek *Errepidea*-n, karabana batean bizi diren ama-alaba batzuena. Bere bizitzarekin zer egin nahi duen erabakitzen ari den 16 urteko gazte bat jarri du protagonista rolean Fernando Morillok *Azeri noblea* liburuan. Jose Luis Urrutiak, berriz, Arrigorriaga inguruko bataila bat aurkeztu du *Eneko Padurakoa*-n: Padurakobataila; euskaraz nahiz gazteleraz atera du.



Jesus Maria Olaizola *Txiliku* idazlea, mitologiari buruzko liburuekin. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

→ Laburrak

Bertxoko sariketako finala bihar jokatuko da

BERTSOLARITZA › Bihar jokatuko da Bertxoko sariketako finala, Askartzako Trebiñu sagardotegian (Araba). Odei Barroso, Jone Uria, Julio Soto, Ainhoa Mujika, Ander Solozabal eta Asier Azpiroz bertsolariek abestuko dute, 22:30ean, afariaren ostean.

EOSek Beethovenen '9. sinfonia' emango du

MUSIKA › Euskadiko Orkestra Sinfonikoak abonu denboraldiko seigarren egitaraua hasiko du gaur Gasteizen. Beethovenen *9. sinfonia* eskainiko du, Andres Orozco-Estradaren zuzendaritzapean eta Ainhoa Garmendia sopranoarekin. Hurrengo astean Bilbon, Donostian eta Iruñean joko du.

Eskoriatza Eskibel jauregia, Gasteizko Udalaren esku

ONDAREA › Eskoriatza Eskibel jauregia Gasteizko Udalaren menpeko ondare historikoa da atzo geroztik. Laster eraikina zaharberritzen hasiko dira, jauregia hiriaren «motor ekonomiko eta turistiko paregabea» izatea nahi baitu udalak.

'Ihes ederra' nobela grafikoa, gaztelaniaz

LITERATURA › Alain M. Urrutia eta Hedoi Etxarteren *Ihes ederra* nobela grafikoaren gaztelaniazko itzulpena argitaratu du Alberdaniak, *La bella huida* izenburuarekin. Maitasuna eta konkista dira nobelaren bi ardatz nagusiak, eta monogamia, sexua eta geopolitika gaietako batzuk.

Repentistak eta payadoreak bertsolariekin ariko dira astebetez

Bilbo, Gasteiz, Gernika, Donostia, Durango eta Iruñean emanaldiak egingo dituzte inprobisatzaileek

Erredakzioa Donostia

Atsedenik gabeko astea izango dute hurrengoa Euskal Herrira etorriko diren Kubako repentistek eta Uruguaiko payadoreek. Egunero gutxienez saio bat egingo dute, Euskal Herriko bertsolariek lagunduta. Hiru inprobisazio jardunak erakusteaz gain, elkarrekin nola uztartzen diren eta elkar nola ulertzen duten ikusteko parada emango dute emanaldietan.

Uruguaitik Mariela Acevedo eta Gabriel Luceno payadoreak etorriko dira, eta Kubatik, berriz, Alexis Diaz repentista eta bi musikari: Angel Luis Aguiar (lauta) eta Ruben Aguiar (gitarra). Saio bakoitzean bi bertsolari izango dituzte lagun. Astelehenean, Gasteizko Bibat museoan ariko dira payadoreak, Oihane Perea eta Manex Agirrerekin, eta repentistek Gernikako Elai-Alai aretoan abestuko dute, Onintza Enbeita eta Etxahun Lekuerekin. Asteartean, Gasteizko El Parral tabernan izango repentisten eta Iñaki Viñaspre eta Izar Mendigurenen emanaldia. Asteazkenean, abenduak 1, elkarrekin ariko dira repentistak, payadoreak eta bertsolariak Gasteizko Santa Maria katedralean, goizez, eta Bilboko Alondegian arratsaldez. Hala gertatuko da hurrengo emanaldietan ere: ostegunean Iruñeko Gurutze plazan, ostiralean Donostiako Antzoki Zaharrean, larunbatean Gasteizko Jimmy Jazz aretoan eta igandean Durangoko San Agustin kultur gunean.

Xenpelar sariko lehen kanporaketa jokatuko da bihar Errenterian

Seina bertsolarik hartuko dute parte saio bakoitzean, eta finala abenduaren 8an jokatuko dute

Erredakzioa Donostia

Hogeigarren urtez egingo da, Errenterian (Gipuzkoa), Bertsolari Gazteen Txapelketa, Xenpelar Saria esaten zaiona. Hiru kanporaketa egingo dira, eta saio bakoitzeko bi onenak igaroko dira abenduaren 8ko finalera.

Alaia Martin, Aitzol Barandiaran, Oier Aizpurua, Iñaki Aleman, Unai Gaztelumendi eta Ekhi Erremundegi ariko dira lehen kanporaketan, bihar, Errenteria Hiria kulturgunean. Hilaren 27an, Julio Soto, Agin Rezola, Patxi Iriart, Saioa Alkaiza, Izar Mendiguren eta Ane Labaka lehiatuko dira, eta abenduaren 3an, Jone Uria, Odei Barroso, Arrate Illaro, Haritz Casabal, Manu Goiogana eta Asier Azpiroz.